

# ALAITZA

– ARABA / ÁLAVA –

Arabako Lautadan dago Alaitza, Agurainetik kilometro gutxira. Hortaz, Aguraingo kuadrillaren barruan, Iruraitz-Gaunako udalerriaren parte da. 27 kilometrora du Gasteiz, eta hiriburutik hara joateko, autobia hartu behar da, Donostiarako bidea. 375 irteeran eskuinetara jo eta, Gazeorantz eginda, bertara helduko gara.

Alaitza abizenetan jasota dator 1071. eta 1085. urteetako izkribuetan, orduko hartan lekuko gisa sinatzen baitu Eximio Beilaz Alaitzakoa zeritzon bizilagun batek. Ez da azaltzen Rejako elizen zerrendan; bai, ordea, Aznar gotzainaren 1257ko gutunean. *Halayca* izena darabil agiri horretan auzoa izendatzeko. Ez dago, berez, Arabako Donejakue Bidearen barruan, baina, hala eta guztiz ere, jendearen joan-etorri handia ezagutu du, Gereñuko mendatea hurbil duelako. Hain zuzen, Gereñu dute pasabide Ebro aldetik Laminoria ibarretik zehar iparrerantz zein Nafarroarantz zetozenek. Ez da ahaztu behar, gainera, Nafarroako mugan geratzen dela Alaitza eta Arabako Lautada osoa.

Alaitza se sitúa en la Llanada alavesa, a pocos kilómetros de Salvatierra, cuadrilla a la que pertenece, y forma parte del municipio de Iruraiz-Gauna. Desde Vitoria, situada a unos 27 km, se accede por la autovía en dirección a San Sebastián, tomando a la derecha la primera salida, número 375, en dirección a Gazeo.

Alaitza aparece registrado como apellido en los años 1071 y 1085, en los que uno de sus vecinos, Eximio Beilaz de Alaitza, firma como testigo en diversos documentos. No aparece en la relación de iglesias de la Reja, pero sí lo hace en la carta del obispo Aznar en 1257, que denomina *Halayca* a esta aldea. Aunque no se sitúa exactamente dentro de la ruta del Camino de Santiago por Álava, ha sido un lugar de tránsito por su cercanía con el puerto de Guereñu, paso desde zonas del Ebro a través del valle de Laminoria hacia el Norte, así como hacia Navarra, siendo, además, zona fronteriza con este reino, como toda esta área de la Llanada.

## *Jasokundeko Andre Maria eliza Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción*

**A**LAITZAKO PARROKIAK ia erabat gorde du egitura erromanikoa. Nabe angeluzuzena du, kanoi-ganga zorrotzak estalita, eta hiru atalek, presbiterioak eta labe-gangadun abside erdizirkularrak osatzen dute. Eraikin osoaren inguruan, parpain-arkuen altueran, erlantz bat doa. Bai labe-gangako arkuak, bai garaipen-arkua beheainoko pilastra batzuen gainean daude, eta hegaletan bi baketoi ageri dira. Gainerako arkuak ere, iparreko horman, pilastra gainean paratu dira. Hegoaldeko horman, ostera, mentsula lauen gainera datoz, arku zorrotz bi daudelako nabe nagusiaren albo honetan altxatutako bigarren nabe batekin lotuta. Lau atal ditu espazio honek; kanoi-ganga batek eta mentsula gaineko parpain-arkuek estalita. Egituraren oinetan dagoenean, korurako eskailera dago; hurrengo biek harrera-gune eta alboko kapera osatzen dute, eta azkena, itxia eta karratua, sakristiarako darabilte. Harako sarbidea, berriz, buruaren eskuinaldean irekitako ate baten bidez

**L**A PARROQUIA DE ALAITZA conserva prácticamente íntegra su estructura románica. Consta de una nave rectangular cubierta por bóveda de cañón apuntada, compuesta de tres tramos, presbiterio y ábside semicircular con bóveda de horno. Todo el perímetro de la construcción está recorrido por una cornisa a la altura del apoyo de los arcos fajones. Tanto el arco de la bóveda de horno como el triunfal apoyan en pilastras que bajan hasta el suelo, en cuyas esquinas se ven dos baquetones. El resto de los arcos, en el muro norte, también se apean en pilastras, pero en el lado sur descansan sobre ménsulas lisas, ya que existen dos arcos apuntados que comunican con una segunda nave, adosada a este lado de la principal. Es un espacio de cuatro tramos, cubierto por bóveda de cañón y arcos fajones apoyados en ménsulas: el de los pies acoge la escalera que da acceso al coro; los dos siguientes hacen la función de recibidor y capilla lateral, y el último, cerrado

dago. Baliteke espazio hau guztia ehorzketetarako eraiki izatea Erdi Aroan. Antzeko elizpe bat dago Alaitzatik hurbil, Okarizen ere, eta horrek azaldu egingo luke portada bikoitza izatea, aurrerago ikusiko dugunez.

Leihoei dagokienez, hiru daude gaur egun. Gezi-leiho bakunak dira, bi burualdean –erdian eta eskuinetara–, eta beste bat mendebaldeko horman. Azken horren azpian bao bikoitza ireki zuten XVI. mendean. Ondoko nabean ere, bigarren atalean, beste gezi-leiho bat dago irekita kanpora, hegoaldera.

Eraikinaren kanpoko aldean, elizpe angeluzuzen baten babesean ageri da portada nagusia. Bost arkibolta zorrotz eta deskarga-arkua zituen egin zenean, baina, gaur egun, osorik bost horietatik hiru baino ez daude, eta beste bien hasiera baino ez, gainerakoak galdu egin baitzituzten elizpe gainekoa eraitsi zutenean. Arkibolta zorrotzak dira, eta, barrutik kanpora, lehenengoa, hirugarrena eta bosgarrena baketoidunak dira; bigarrenak eta laugarrenak, oster, moldura konkabo samarra dute eta iltze buruen ilara mehe batek apainduta daude. Inposta laua da, eta apaindura bera


y cuadrado, sirve de sacristía, a la que se accede por una puerta abierta en el lado derecho de la cabecera. Es posible que todo este espacio, también medieval, se construyera como pórtico destinado a enterramientos, una solución de la que también quedan restos en la no muy lejana población de Okariz, y que explicaría la existencia de la doble portada que se detallará más adelante.

En cuanto a las ventanas, se conservan tres, simples saeteras, dos en la cabecera –en el centro y en el lado derecho–, y otra en el muro occidental, bajo la cual se abrió un vano doble en el siglo XVI. En la nave contigua, en el segundo tramo, también se abre una ventana aspillera al exterior del lado sur.

En el exterior de la construcción, bajo un pórtico rectangular, aparece la portada principal, originariamente de cinco arquivoltas apuntadas y sobreacto, que en la actualidad se ve reducida a tres arquivoltas, completas las interiores, y los arranques de las demás, que se vieron destruidas al eliminar la construcción existente sobre el pórtico. Son arquivoltas apuntadas, y, en orden de dentro afuera, la pri-


*Kanpoaldea / Exterior*





Oinplanoa / Planta

Hegoaldeko altxaera / Alzado sur







*Ebaketa zebarka*

*Sección transversal*



*Absidea*

*Ábside*





*Portada*

*Portada*



*Xebetazuna*

*Detalle*





Absideko ganga

Bóveda del ábside

du, eta haren azpian landare-irudiko kapitelak ageri dira. Adierazpen artistiko eskasekoak inondik ere, zisterarren bakuntasunak eraginda, seguruenik. Deskarga-arkuaren eskuinaldeko hasieran xake-irudien apaindura ageri da, ustez denean egongo zena.

Elizpeak sasoi batean apaiz-etxea zegoen lekurantz du irteera eskuinaldean, baita hegoaldean, bigarren portadan ere. Portada nagusiaren oso antzekoa da; baketoidun bi arkibolta zorrotz baino ez, iltze buruen ilara bat kanpoaldean eta inpostan, eta beste portadan ageri diren kapitel berberak, sigi-sagan lepoko xumeak apaingarri gisa jarrita. Zutabeei eusten dieten harroinek oxkarratu etengabe eta ez oso sakona dute.

Eraikinaren gainerako egituraren harburu lauen ilara bat ageri da, teilatu hegalaen bueltan. Denean, iparreko horman izan ezik, bertan bi bola ageri baitira, txano eta guzti. Hastialean, ur biko teilatuaren azpian ere badira harburuen aztarnak, eta XVIII. mendeko kanpai-hormaren azpian ere, bi atal ageri da. Bietako batean ahari baten irudia omen dena azaltzen da.

1982. urtean, eraikinaren buruko horma eta gangetan, horma-irudi batzuk aurkitu zituzten, eta, oraindik ere, ez dago guztiz argi irudion nondik norakoa. Teknika misto bat erabiliz egindako margoak dira, kolore gorri eta beltzean, egikera baldar samarrekoak, erliebe eta perspektibarik gabek, eta, sarritan, Erdi Aro Berantiarreko miniaturak be-

mera, tercera y quinta son baquetonadas, mientras que la segunda y cuarta tienen moldura algo cóncava y se decoran con una fina hilera de cabezas de clavo. La imposta, lisa, también presenta esta decoración, y bajo ella se ven los capiteles vegetales, que quedan aquí reducidos a la mínima expresión artística, de una austeridad que puede atribuirse a la influencia del arte cisterciense. El arranque derecho del sobreaarco muestra una decoración de ajedrezado que suponemos continuaría en toda su extensión.

El pórtico se abre a la derecha por un acceso que antes conducía a la desaparecida casa cural, y por el lado sur en la segunda portada, muy similar a la principal, siendo ésta de sólo dos arquivoltas apuntadas baquetonadas, con una línea de cabezas de clavo en la exterior y en la imposta, y los mismos capiteles que en la otra portada, decorados con una decoración en zigzag en sus escuetos collarinos. Las columnas se apoyan en basas con un festoneado continuo poco pronunciado.

El resto de la construcción presenta una hilera de canes lisos debajo del tejazoz, menos uno en el muro norte que presenta dos bolas con caperuza. En el hastial también hay restos de canecillos bajo el tejado a dos aguas, y bajo la espadaña, del siglo XVIII, se encuentran dos fragmentos, en uno de los cuales se podría representar un carnero.

En el año 1982 se descubrió en los muros y bóvedas de la cabecera un conjunto de pinturas murales, que en

gitantzen zaizkigu. Zerrendetan antolatuta, lore-eskemak, forma geometrikoak, erromesaldien irudiak, benetako animaliak eta irudimenezkoak, eta –denetan nabarmenena– gaztelu bati egindako eraso eta babesazaltzeko eszena bat; zaldunen arteko borroka, eliz kanpaiak, bortxaketa eta hiletak irudikatuta. Horren gaineko interpretazioaz dagoen bibliografia guztia bildu dugu hemen, teoria baten edo beste baten alde egin gabe. Izan ere, gutxi erabilitako gaia denez, ez da erraza erantzun argi bat ematea. Margo multzoarekin batera letra gotikoz egindako izkribu bat dator, absidearen arroan. Zaila egiten zaie adituei horiek interpretatzea, eta lortuko balute, argiago izango genuke beharbada margo bitxi eta liluragarrion jatorria.

Azkenik, bataiarriak Erdi Aroko egikera, kopa eta oin bakunak ditu, eta absideko margoekin lotura omen duten margoekin dago apainduta, antza denez.

Testua eta argazkiak: REA - Planoak: LGS

muchos aspectos suponen aún una incógnita sobre su interpretación. Son pinturas realizadas con una técnica mixta en colores rojos y negros, de factura rudimentaria, sin relieves ni perspectiva, recordando en ocasiones a las miniaturas altomedievales. Muestran, en un despiece en franjas, motivos florales esquemáticos, formas geométricas, escenas humanas de peregrinación, animales reales y fantásticos, y –la más destacable– la escena de un asedio y defensa de un castillo, además de lucha de caballeros, toque de campanas en iglesias, violaciones y entierros. Facilitamos aquí la bibliografía conocida sobre las variadas interpretaciones existentes sin decantarnos por ellas, ya que el carácter inusual de la temática complica mucho la solución de las cuestiones formuladas. El conjunto pictórico se acompaña de una inscripción en letras góticas bajo la cuenca del ábside, de muy difícil interpretación para los expertos, que quizás arrojaría más luz sobre estas extrañas y fascinantes pinturas.

Por último, la pila bautismal, de corte medieval, con copa y pie lisos, también se decora con pinturas que podrían relacionarse con las del ábside.

Texto y fotos: REA - Planos: LGS

### *Bibliografía / Bibliografía*

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 108; EGUÍA LÓPEZ DE SABANDO, J., 1986, pp. 29-48; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 23-24; OCÓN ALONSO, D., 1996, p. 75; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1982, pp. 249-251, fig. 154-155.